

## SARRERA

Oreka Zalditegi terapeutikoa 2019an sortu dugu.

Maddi Galparsoro, Juncal Peña, Maria Ruiz eta Kizkitza Sadaba gara elkartu eta elkartea sortzeko asmoa piztu dugunak.



Jendearen ongizatea, oreka, terapia, hipika klaseak, eta naturarekin kontaktuan egotea bultzatzeko sortu dugu, jendarte askeago eta harreman osasuntsuagoak sustatzea genuelako helburu.

**Gure lan ildoak hezkuntza alorra eta osasun arloko eremuak dira.**

Bertan lan egiten dugun profesionalok psikologian, albaitaritzan, coach munduko adituak eta osasunean adituak gara.

Naturarekin kontaktua ezinbestekotzat jotzen dugunez osasuntsu eta modu orekatuan bizi ahal izateko, gure zentroa Larraitzen kokatzen da, baserri, zelaiez eta mendiz inguratutako paraje berde batean.